



Gure ikastolan KiVa programa abian jarriko dugu!

KiVa **bullying** edo **eskola-jazarpenaren aurkako** programa da. KiVa programa Finlandiako Hezkuntza Ministerioak finantzatu eta Turkuko Unibertsitateak sortu eta garatutako eredu bat da, eskola-jazarpena murriztea xede duena.

KiVa ikasgaietan, ikasleek jazarpenaren kontra borrokatzeko bideak ikasiko dituzte

KiVa-ren ezarpena era askotan nabari da eskolan. Ikasleek KiVa ikasgaiak izango dituzte. Ikasgaietan eztabaidak, taldeko lana, eskola-jazarpenari buruzko film laburrak eta rol-jokoak sartzen dira. Gaiak, berriz, orokorrak –esaterako, errespetuaren garrantzia giza harremanetan– nahiz *bullying*-arekin lotutakoak dira, hala nola jazarpenaren mekanismoak eta ondorioak. Ikasgai askotan, jazarpenak bere horretan jarraitzean edo hura gelditzean taldeak jokatzen duen rola aztertzen da; ikasleek pentsatuko dute zer modu egon daitezkeen jazarpenari aurre egiteko, eta praktikatu egingo dituzte. Ikasgaien osagarri gisa, eskola-jazarpenaren aurkako KiVa ordenagailu-joko bat ere badago. Eskolako korridoreetan KiVa posterrak egongo dira, programa etengabe presente dagoela ziurtatzeko.

KiVa taldeak eta gelako irakasleak elkarrekin aurre egiten diete jazarpen-kasuei

Ikastolak *indar berezien* talde bat du –KiVa taldea–, hiru irakaslek, Teresa Galisteo, Soraya Alzola eta Txus Rodriguez, osatua. Gelako irakaslearekin batera, jazarpen-kasuez arduratzen da taldea.

Zure haurra jazarria izaten ari dela susmatzen baduzu, edo besteei jazartzen ari zaiela uste izateko motiboren bat baduzu, mesedez jarri harremanetan ikastolarekin, auzia ahalik eta modu eraginkor eta azkarrean bideratu ahal izateko! Jazarpenaren inguruan hitz egin berarekin, baita jazarria ez bada edo besteei jazartzen ez bazaie ere. Garrantzitsua da zuk eta zure haurrak elkarrekin pentsatzea zer egin beharko litzatekeen norbait eskolan jazarria izaten ari bada!

KiVa **Gurasoen** **Gida** eskuragarri dago KiVa webgunean:
<http://www.kivaprogram.net/basque>